

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika. Plan estrategikoa (2017-2019) (hasierako idatzaldia)

2016ko urria



Sarrera

Euskara Nafarroak duen berezko mintzairerarik bat da. Hizkuntza gutxitua da, azken mendeetan gizartean zuen lekua galduz joan dena eta egun berreskurapen prozesuan dagoena. Horregatik, babesa eta sustapena behar ditu Nafarroako herritar guztien aberasgarri eta onura izateko.

Nafarroak bere hizkuntza errealitatea arautu du, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan, Euskarari buruzko Foru Legean eta hura garatzen duen araudian. Bestalde, Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna aintzat hartzekoa da, bai eta hura betetzeko Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen aholkuak eta Adituen Batzordearen txostenak ere.

2015-2019 legealdiko Nafarroako Gobernuak Programa Akordioak hizkuntza politika berria abiatu beharra nabarmendu du. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatu eta hizkuntza normalizazioan aitzina egiteko, hizkuntza politikak honelakoa behar du:

- Zeharkakoa, politika publikoetan eta gizarte arlo orotan eragina duena.
- Progresiboa eta Nafarroako egoera soziolinguistiko ezberdinei egokitua.
- Eraginkorra, ongi planifikatua eta ebaluatua.
- Parte hartzea bultzatzen duena, bai herritarrena, bai euskara sustatzeko lanean ari diren gizarte-eragileena.
- Hizkuntza eskubideak bermatzeko bidean aurrera egiteko arauzko babes egokia duena.
- Euskarari gizartean prestigioa emanen diona.
- Herritarren askatasuna eta borondatezkotasuna begiratuko dituen.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren oinarria finkatzeko, Programa Akordioak euskararen diagnostikoa eta Plan Estrategikoa eginen zirela ezarri du.

Bestalde, 130/2015 Foru Dekretuak, abuztuaren 28koak, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren estatutuak onetsi zituen. Erakunde autonomo horren egitura organikoa eta eskumenak ezarri ziren zeharkako lana egin dezan, Nafarroako Gobernuaren departamentu guztien egintzari eragitearren.

2016ko otsailaren 16an Euskarabideak Euskararen Plan Estrategikoaren helburuak eta metodologia Euskararen Nafar Kontseiluari aurkeztu zizkion.

Plan Estrategikoaren dokumentua fase hauetan eginen da:

- Euskarak Nafarroan duen egoeraren diagnostikoa osatu, adituen eta gizarte eragileen ekarpenez baliaturik.
- Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia edo bertsioa apailatu, mahai teknikoetako gizarte eragileen ekarpenak aintzat harturik.
- Plan estrategikoaren hasierako idatzaldia herritarren parte hartzearen prozesu publikoan jarri: Nafarroako 6 eskualdetan informazio saioak eginen dira, arlokako 5 saio antolatuko dira eta herritarrei Gobernu Irekiaren atariaren bidez ekarpenak egiteko aukera emanen zaie. Parte hartzearen prozesuaren ondotik Plan Estrategikoaren behin-behineko idatzaldia prestatuko da.
- Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren Plan Estrategikoa onartuko du eta dokumentua behin betiko bihurtuko da.



Helburu orokorrak

Hauek dira Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoaren helburu orokorrak:

- Herritar ororen hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikak politika publiko guztiei eragitea eta horiek Nafarroaren izaera elebidunari erantzutea.
- Nahi duen herritar orok, Nafarroa osoan, euskara ikas dezakeela ziurtatzea.
- Euskararen gizarte erabilera eta gizarte arlo orotan euskaraz egiteko aukerak handitzea.
- Nafarren belaunaldi berrien euskarazko sozializazio bideak, hau da, euskaraz jabetzeko eta hizkuntza erabiltzeko aukerak eta baliabideak hobetzea.
- Euskararen gaineko gizarte irudia eta prestigioa hobetuko dituen komunikazio estrategia berria abiatzea, berritzailea eta integratzailea.
- Gizarte hedabideetan nahiz informazio eta komunikazio teknologietan euskarak duen tokia eta euskaraz aritzeko aukerak handitzea.
- Esparru sozioekonomikoan euskara erabil dadin bultzatzea eta euskara ekonomiaren eragileztat agertzea.
- Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaz arduratzen den Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak kudeaketa sistema egokia izatea hizkuntza politika zeharkakoa eta eraginkorra, Gobernuko departamentu guztiei eta nafar gizarte osoari eraginen diena, gauzatu ahal izateko.

Lerro estrategikoak

Helburu estrategiko horiek erdiesteko, ardatz nagusi edo lerro estrategiko hauek definitu dira:

- Gizarte erabilera
- Hitzun berriak
- Zerbitzu publikoak
- Prestigioa eta erakargarritasuna
- Euskara, ekonomia eragilea
- Hizkuntzaren markoa
- Euskarabidearen barne kudeaketa



Plan estrategikoa

Ardatz estrategikoak eta helburuak

1.- GIZARTE ERABILERA USO SOCIAL Euskararen erabilera igotzea, hiztunek gizarte arlo guztietan erabil dezatela erraztuz eta euskararen erabilera errazagoa eginez. Aumentar el uso del euskera, facilitando su uso a los hablantes en todos los ámbitos sociales y haciendo ese uso más fácil. BIZI, VIVIR EN EUSKERA	2.- HIZTUN BERRIAK NUEVOS HABLANTES Euskarak hiztunak irabaztea, haurrak nahiz helduak euskarazko hiztun bilakatzeko prozesua azkartuz eta euskaraz jabetzeko baldintzarik onenak bermatuz. Elevar el número de personas que hablan euskera reforzando el proceso en que niños/as y personas adultas se convierten en hablantes y garantizando las condiciones de adquisición de la lengua. ONGI ETORRI, BIENVENIDA EN EUSKERA	3.- ZERBITZU PUBLIKOAK SERVICIOS PÚBLICOS Administrazio publikoak zerbitzua euskaraz emateko hobeki gaitzea eta zerbitzu publikoetan euskararen eskaintza handitzea. Mejorar la capacitación de las administraciones públicas para dar servicio en euskera y ampliar la oferta en esta lengua en los servicios públicos. ZERBITZUA, SERVICIO EN EUSKERA	6.- HIZKUNTZAREN MARKOA MARCO LINGÜÍSTICO Plan honen helburuak, Programa Akordioarekin bat, betetzen ahalbidetuko duen araugintza lantzea, hizkuntza eskubideak babestuko dituen eta euskararen sustapena bultzatuko duen hizkuntza politika dinamizatuz. Establecer el marco normativo que permita cumplir con los objetivos de este Plan, en línea con el Acuerdo Programático, dinamizando una política lingüística que vele por los derechos lingüísticos e impulse la promoción del euskera. ESKUBIDEAK, DERECHOS EN EUSKERA
4.- PRESTIGIOA eta ERAKARGARRITASUNA PRESTIGIO y ATRACTIVIDAD Euskara gizartearen balio positiboei lotzea, modu atzeraezin eta betikoan. Vincular de manera irreversible el euskera con los valores positivos de la sociedad. ETORKIZUNA, FUTURO EN EUSKERA	5.- EKONOMIA ERAGILEA MOTOR ECONÓMICO Euskarak duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileekin elkartzea. Conectar el valor único del euskera y sus atributos como lengua con los sectores productivos, tecnológicos y de innovación de Navarra. BERRITU, INNOVAR EN EUSKERA		
7.- EUSKARABIDEAREN BARNE KUDEAKETA / GESTIÓN INTERNA DE EUSKARABIDEA EUSKARABIDEAk kudeaketa eredu bihurtuko duten baliabide ekonomikoak, giza arlokoak, materialak eta metodologikoak badituela bermatzea. Garantizar que EUSKARABIDEA cuenta con los recursos económicos, humanos, materiales y metodológicos que lo conviertan en un modelo de gestión. KUDEATU, GESTIONAR EN EUSKERA			



Lerro estrategikoak eta ekintzak

1. GIZARTE ERABILERA ^[1]

BIZI, *VIVIR* EN EUSKERA^[2]

1.1.- Euskararen gizarte erabilera handitzea, erabilera sustatuz eta hizkuntza ulertzen badute ere mintzatzeko ohiturarik ez duten hiztunak aktibatuz. [3]

1.1.1 Eskaintza eta aukerak zabaltzea ^[4]

1.1.1.1 Foru Administrazioak berak kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren esparruan antolatzen dituen jardueretan euskarazko eskaintza nahikoa izan dadila bultzatu eta toki entitateek antolatzen dituztenak babestu. ^[5]

1.1.1.2 Auzo bizitzan eta zerbitzugintzan euskara erabiltzeko aukerak handitu, gizarteko eragileekin batera. ^[6]

1.1.2. Erabilera bultzatzea ^[7]

1.1.2.1 Euskara ulertzen den baina erabiltzen ez den egoeretan euskara gehiago erabiltzeko estrategiak sustatu. ^[8]

1.1.2.2. Euskararen erabilera urriagoa den eremuetan programa bereziak bideratzen lagundu euskararen erabilera naturala pizteko (mintzakide, gurasolagun...). ^[9]

1.1.3. Erabilera ohiko egin eta baliostea ^[10]

1.1.3.1 Euskararen erabileraren normaltasuna sustatu, euskara edozein egoeratan egitea bidezko eta egokia dela gizarteratzeko. ^[11]

1.1.3.2. Euskara erabiltzen duten gizarte eragileek egiten duten lana balioetsi. ^[12]

1.2.- Euskaraz eskolatu diren gazteen harreman ez-formaletan eta lagunartekoetan euskararen erabilera handitzea. [13]

1.2.1. Harreman ez-formalak ^[14]

1.2.1.1 Aisialdi antolatuaren alorrean nerabe eta gazteei interesatzen zaizkien jarduerak bultzatu, betiere haien iritzia aintzat hartuz. ^[15]

1.2.1.2 Gazteen artean euskaraz egitea balio positibotzat indartzeko ekintzak antolatu (lehiaketak, hausnarketa saioak, tailer bereziak...). ^[16]



1.3.- Komunikaziorako tresna teknologikoak euskararen gizarte erabilera emendatzeko inbertsio estrategikotako jotzea, euskararen erabilera beste edozein hizkuntzarena bezain erraza eta samurra eginez. [17]

1.3.1 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) [18]

1.3.1.1 IKTek hedatzeko duten indarraz baliatu euskara normaltasunez erabiltzeko. [19]

1.3.1.2 IKTetan euskarak duen tokia eta euskaraz erraz aritzeko aukerak handitu (aplikazioak eta programak euskaratu...).[20]

1.3.1.3 Administrazio eta erakunde publikoek herritarren eskura uzten dituzten aplikazioak euskaraz erabilgarri izateko moduak sustatu. [21]

1.3.1.4 IKTetako produktuak (bideo-jokoak...) euskaraz argitaratzea sustatu. [22]

1.3.2 Sare sozialak [23]

1.3.2.1 Sare sozialetan euskararen presentzia bultzatu. [24]

1.3.2.2 Interneten dauden informazio guneetan (wikipedian, kasu) euskaraz argitaratzeari eragin. [25]

1.4.- Euskarazko hedabideen eskaintza, bai eta nagusiki erdaraz diren hedabideetan euskarak duen tokia ere, zabaltzea, herritarren euskararen kontsumoa berretzeko. [26]

1.4.1 Euskarazko hedabideak [27]

1.4.1.1 Euskarazko hedabideen egonkortasuna bermatzeko formulak aztertu. [28]

1.4.1.2 Nafarroako euskarazko hedabideen eskaintzaren irismenaren azterketa egin eta herritar guztiengana heltzeko dauden hutsuneak betetzeko eta aukera berriak zabaltzeko bideak jorratu. [29]

1.4.1.3 Foru Administrazioaren eta sektorearen arteko elkarlanerako guneak sustatu euskarazko hedabideen arloaren beharrei hobeki erantzuteko.[30]

1.4.2 Erdarazko hedabideak [31]

1.4.2.1 Gaztelaniazko komunikabideetan euskararen presentzia areagotu. [32]

1.4.2.2 Finantziario publikoa duten hedabideek programen zati bat euskaraz ematea bultzatu, deialdi bakoitzak finkatzen duen neurrian. [33]

1.5.- Eskolaz kanpoko jarduerak eta, oro har, aisialdi antolatuaren esparruak haur-gaztetxoek hizkuntza portaeretan duen eraginkortasuna hobetzea, beraiei artean euskaraz egiteko ohitura sortu eta sendotzeko. [34]



1.5.1 Aukerak landu eta gizarteratu [35]

1.5.1.1 Haur eta gaztetxoek hizkuntza portaeretan eragiteko estrategiak landu eta garatu arloko eragileekin, aisiaren estrategikotasuna gizarteratuz. [36]

1.5.1.2 Aisia eta kirol eskaintza euskaraz koordinatzeko eta gizarteratzeko gunea sortzea aztertu. [37]

1.5.1.3 Haur eta gaztetxoek hizkuntza portaerak eta euskararen erabilera pizteko bideak aztertzeko topaketak eta lanketarako egokiak izan daitezkeen jarduerak antolatzea sustatu. [38]

1.5.1.4 Nafarroako Gobernuak beste departamentuetatik abian diren programetan (Gaztediaren Planean, kirol federazioekiko elkarlanean...) euskararen erabilera sustatzeko irizpideak sartu. [39]

1.5.2 Hizkuntza irizpideak [40]

1.5.2.1 Diru-publikoak laguntzen diren programetako begirale, hezitzaile, entrenatzaile eta halakoek kontratazioetan eta aisialdi eta kirol ekimenetara bideratzen diren diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txertatzea aztertu. [41]

1.5.2.2 Aisialdian eta kirol arloan diruz laguntzen diren ekintzetan euskararen presentzia eta erabilera ziurtatzeko neurriak hartu. [42]

1.5.3 Baliabideak [43]

1.5.3.1 Begirale, hezitzaile, entrenatzaile eta halakoak haur-gaztetxoek artean euskararen erabilera pizteko hizkuntza dinamizazioan trebatzea bultzatu. [44]

1.5.3.2 Arloko eragileei hizkuntza prestakuntza tekniko eman (berriak hiztegiak, entrenatzaileentzako ikastaroak...).[45]

1.6.- Merkataritzan, zerbitzu profesionaletan eta enpresetan euskararen erabilera hedatzen duten ekimenak garatzea, norbanakoei euskaraz lan egitea errazten dietenak, euskara komunikazioetan sartzen dutenak, euskarazko eskaintza ikusgarri egiten dutenak eta euskara hizkuntza paisaia ohiko egiten dutenak. [46]

1.6.1 Lan mundua eta norbanakoak [47]

1.6.1.1 Euskaraz lan egiteko baliabideak identifikatu (hiztegi digitalak, agiri ereduak bankuak, web orri bereziak...) eta langileei ezagutarazteko estrategiak jorratu. [48]

1.6.1.2 Enpresetako langileei euskarazko prestakuntza errazteko aukerak aztertu. [49]



1.6.2 Euskara planak, kanpainak eta hizkuntza irizpideak [50]

1.6.2.1 Lan munduan euskara planak sustatzeko programak abian jartzen lagundu. [51]

1.6.2.2 Merkataritza alorrean euskararen erabilera handitzeko kanpainak sustatu toki entitateekin elkarlanean. [52]

1.6.2.3 Arlo sozioekonomikoko diru-laguntza deialdietan hizkuntza irizpideak txertatzea aztertu. [53]

1.6.3 Elkarlana [54]

1.6.3.1 Elkargo profesionalekin eta merkatarien elkarteekin aukerak aztertu euskarazko zerbitzuak ezagutzera emateko. [55]

1.6.3.2 Enpresarien elkarteetako eta sindikatueta ordezkariekin elkarguneak bultzatu euskararen erabilera handitzeko bideak aztertzeke. [56]

1.6.3.3 Interes publikoa duten zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bezeroarekiko zerbitzugintza euskaraz ere eskaintzeko bideak jorratu. [57]

1.6.3.4 Lan munduko erakunde eta enpresei zuzendutako arreta gune bat sortu, euskararen erabilerari laguntzeko bideetan haien kezka eta beharrei erantzuteke. [58]

1.6.3.5 Euskara merkataritza arloko hizkuntza paisaia sustatu. [59]

1.6.3.6 Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko ekimenak bultzatu. [60]

1.7.- Euskarazko sormenezko kultura produktu eta jardueren eskaintza zabaltzea euskararen bidez hitzunak bizi duen esperientzia estetiko eta zirrarakoa euskararen erabileraren sendogarria izateke. [61]

1.7.1 Euskarazko kultur sormena [62]

1.7.1.1 Euskarazko sorkuntza bultzatzeko ekimenak abian jarri (diru-laguntzak, sariak, lehiaketak...).[63]

1.7.2 Euskarazko kontsumoa [64]

1.7.2.1 Euskarazko kultura produktuak ikusgarri egiteko eta haien kontsumoa sustatzeko estrategiak landu. [65]

1.7.2.2 Nafarroa osoko herritarrek euskarazko kultura eskaintza balia dezaketela ziurtatzeko neurriak hartu. [66]

1.7.2.3 Euskarazko kultura produktuak (musika, zinema, antzerkia, literatura...) adin tarte guztietako herritarrei eskaintzen zaizkiela ziurtatzeko bideak aztertu. [67]



1.8.- Udalerrri euskaldunek eta, oro har, euskararen arnaguneek Nafarroarako duten balio kualitatiboa aintzatestea; aurrerantzean ere euskarak eskualde horietako gizarte-bizitza eratzen duen elementua izaten segi dezan. [68]

1.8.1 Arnaguneak (udalerrri euskaldunak) [69]

1.8.1.1 Euskara hein handi batean jakiten den eta, oro har, mintzatzen den lekuen funtzio estrategikoa aztertu, horietan politika espezifikoak aplikatzeko aukerak landu eta planak garatu gizarte erabilera sendotze aldera, betiere herritar guztien hizkuntza eskubideak bermaturik. [70]

1.8.1.2 Udalerrri euskaldunak ere Nafarroa osorako erreferente positibo eta erakargarri bihurtu eta garapen kulturalki iraunkorra balioetsi. [71]

1.8.1.3 Arnaguneetan zerbitzu publikoak euskaraz bermatzeko neurriak hartu. [72] 1.8.1.4 Arnaguneetako merkataritza eta lan munduan euskararen erabilera naturaltasunez bultzatuko duten programak abiatu. [73]

1.8.1.5 Udalerrri euskaldunetan euskara ez dakiten herritarrei euskara hurbiltzeko estrategiak aztertu toki entitate horiekin batera. [74]

1.8.1.6 Hirigintza plangintzek eta, oro har, herri-lan proiektuek arnaguneetan izan dezaketen hizkuntza-eragin edo inpaktua ebaluatzeko neurriak sartu ekimen horiek bideratzeko prozeduretan; ebaluazio horren arabera egoki irizten zaien neurriak proposatzeko. [75]

1.9.- Nafarroako euskalkiak eta euskararen aldaerak zaintzea, garatzea eta hedatzea herritarrek ezagutu, balioetsi eta erabil ditzaten. [76]

1.9.1 Euskalkiak eta euskararen aldaerak [77]

1.9.1.1 Euskalkiak eta bertako euskararen aldaerak ezagutzera emateko bide erakargarriak sustatu. [78]

1.9.1.2 Euskara batuaren baliagarritasunaren ondoan Nafarroako euskararen mintzamoldeen baliagarritasun komunikatiboa agerian jarri, batik bat horiek bizi-bizirik dauden tokietan. [79]

1.9.2 Ondare materiagabearen digitalizazioa eta hedapena [80]

1.9.2.1 Nafarroako euskal kultura ondare materiagabearen digitalizazioa eta herritarren eskura uztea bultzatu [81]

1.9.2.2 Euskararen Mediatekako funtsak didaktikoki hedatzeko proiektuak burutu. [82]



2. HIZTUN BERRIAK^[83]

ONGI ETORRI, *BIENVENIDA* EN EUSKERA^[84]

2.1.- Eskolan euskara ikasteko aukera nafar guztiek eskura izatea, haurrak euskaraz eskolatu nahi dituzten familiek aukera hori bermaturik izan dezaten eta ikasleek hezkuntzako goiko mailetan ere euskaraz ikasten jarraitu ahal izan dezaten. ^[85]<

2.1.1 Haur Hezkuntza (lehen zikloa [0-3 urte] eta bigarren zikloa [3-6 urte]) ^[86]

2.1.1.1 Haurrak haur eskoletan euskaraz (D ereduan) matrikulatzeko aukera familia guztien eskura egon dadin neurriak hartu. ^[87]

2.1.1.2 Haurrak euskaraz (D ereduan) eskolatzeko aukera Nafarroa osoan ziurtatu, Euskararen Foru Legean izan den aldaketa baliaturik eta aukera hori gauzatzeko. ^[88]

2.1.1.3 D ereduaren aldeko matrikulazio kanpainak gizarte eragileekin batera antolatu eta bideratu, euskarazko eskolatzeari sendotzea helburu duen komunikazio estrategia iraunkorrean oinarritua. ^[89]

2.1.2 Derrigorrezko Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea ^[90]

2.1.2.1 Ikastetxeetan euskararen irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduerak plangintzak (hizkuntza proiektuak) egitea sustatu. ^[91]

2.1.2.2 Ikastetxeen eta haien ingurune hurbilaren arteko harremanak bultzatu, ikastetxetik at, gizartean, euskaraz duen errealitateak ikasleen ikaste prozesua sendotzeko. ^[92]

2.1.2.3 Ahozotasuna (euskarazko ahozko adierazkortasuna) lantzea xede duten programak eta materialak sustatu. ^[93]

2.1.2.4 Lanbide Heziketan euskaraz ikasteko eskaintza handitu. ^[94]

2.1.2.5 Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz ikas daitezkeen kredituak emendatu. ^[95]

2.1.3 Irakasleen trebatzea ^[96]

2.1.3.1 Euskara irakasleei hizkuntzen didaktikaren arloan etengabeko trebatzea sendotu, ikasleen komunikazio gaitasunak hobetzeko eraginkorrak izateko. ^[97]

2.1.3.2 Irakasleen euskarazko komunikazio gaitasunak hobetzeko prestakuntza eskaintza sustatu. ^[98]



2.2.- Haurrak eta nerabeak euskarazko hiztun bilakatzeko eta euskaraz sozializatzeko prozesua sendotzea eskolaz kanpoko arloetan, batik bat aisialdi, kirol eta kultura jardueretan; haur-gaztetxoek euskaraz berez, aise eta eroso komunikatzeko. [100]

2.2.1 Erabiltzeko aukerak ugaltu. [101]

2.2.1.1 Belaunaldi berriak euskaraz sozializatzeko bideak, hau da, euskaraz jabetzeko eta hizkuntza erabiltzeko aukerak eta baliabideak hobetu. [102]

2.2.1.2 Euskara ikasten duten haurrei eskolaz landa euskaraz jarduteko aukerak zabaltzea sustatu. [103]

2.2.1.3 Euskara ikasgai duten (A eredu) haurrei euskara eskolaz kanpo modu ludiko eta dibertigarrian ikasten segitzeko aukerak areagotu. [104]

2.2.2. Hizkuntza ohiturak sendotu [105]

2.2.2.1 Euskara eskolan ikasi duten ikasleei euskararen erregistro ez-formaletan trebatzeko programak bideratzeko aukera aztertu. [106]

2.2.2.2 Haur eta nerabeak protagonista bihurtuko dituzten euskararen erabilera sendotzeko aisialdi, kirol nahiz kultura programak bultzatu. [107]

2.2.3 Hizkuntza portaerak ikertu [108]

2.2.3.1. Haurren eta nerabeen hizkuntza portaerak, hala eskola barnean nola eskolatik kanpo, sistematikoki aztertzeko bideak ezarri. [109]

2.3.- Familien barneko harremanetan euskararen erabilera handitzea, euskaraz eskolatzen diren haurren eta gurasoen arteko harremanetan euskara sartzea, horiendako guztiendako hizkuntza ikastearen eta erabiltzeko motibazioaren indargarria izateko. [110]

2.3.1 Baliabideak eskaini [111]

2.3.1.1 Familietan euskararen erabilerari laguntzen dioten materialak sortzea sustatu eta gurasoei komunikazio baliabide horietaz modu praktikoan jabetzeko aukerak eskaini. [112]

2.3.1.2 Euskara dakiten gurasoei eta ez dakitenei seme-alabekin dituzten komunikazio beharrei erantzun egokiak emateko estrategiak jorratu. [113]

2.3.1.3 Euskararen erabilera ohiturak familiaren aisialdian sendotzeko esperientziak landu. [114]



2.3.2 Kontzientziazioa eta sentsibilizazio [115]

2.3.2.1 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako euskarazko haziera eta sozializazio bideen gaineko kontzientziazio nahiz sentsibilizazio saioak eman, euskaraz nahiz gaztelaniaz. [116]

2.3.2.2 Gurasoek eta umeek euskara normaltasunez erabiltzen hasteko familientzako guneak sortu eta erabilera pizteko estrategiak jorratu. [117]

2.4.- Helduen euskalduntzea Nafarroa osoan bermatzea euskara ikasi edo hobetu nahi duen orok egin ahal izan dezala baldintzarik hoberenetan, hiztun aktibo bilakatu bitartean laguntzen zaiola. [118]

2.4.1 Eskaintzaren unibertsaltasuna [119]

2.3.3.1 Helduen euskalduntzeko ikastegi publikoek gizartearen eskariari erantzunen diotela ziurtatu. [120]

2.3.3.2 Hizkuntza eskola ofizialetan euskara ikasteko aukera Nafarroako herritar guztiei zabaldu, ahal den aukerarik hoberenetan. [121]

2.4.2 Koordinazioa eta elkarlana [122]

2.4.2.1 Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko Nafarroako erakundearen egonkortasuna bermatzeko bideak jorratu. [123]

2.4.2.2 Helduen euskalduntzearen alorreko Nafarroako eragileekin elkarlanerako gunea sustatu, arloko beharrak aztertuta, zereginak adostu eta araudian jasotzeko. [124]

2.4.2.3 Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzara sustatu, helduen euskalduntzearen alorrean interesgarriak izan daitezkeen elkarlanak eta sor daitezkeen sinergiak bideratzeko. [125]

2.4.3 Erabilerarako jauzia [126]

2.4.3.1 Euskara ikasleak hiztun bilakatzeko eta erabilerarako jauzia egiten laguntzeko programak antolatzen eta zabaltzen lagundu. [127]

2.5.- Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrei euskara ikas dezaten sustatzea, eta horretarako modua ematea, haiek eta haien seme-alabek euskara lagungarria izan baitezakete bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko. [128]



2.5.1 Kanpotik Nafarroara etorritakoak [129]

2.5.1.1 Kanpotik etorritako familien nerabeengan arreta berezia jarri eta euskara hurbilduko dieten programa egokituak garatu. [130]

2.5.1.2 Kanpotik etorritako gurasoei euskararen gaineko informazioa eta hizkuntzaren gaineko baliabideak emateko programak abiatu. [131]

2.5.1.3 Aisiaren arloan bertako nafarren eta etorri berrien arteko elkarguneak sortu, elkarren kultura ondarea balioestea ahalbidetuko dutenak eta, batik bat, euskara nafar hizkuntzaren ezagutza eta balioestea ekarriko dutenak. [132]



3. ZERBITZU PUBLIKOAK^[133]

ZERBITZUA, *SERVICIO* EN EUSKERA^[134]

3.1.- Nafarroako Gobernuaren Administrazioan euskararen ezagutzaren eta erabileraren gaineko informazioa izatea Gobernuko departamentuei hizkuntza planifikazioa errazteko. ^[135]
3.1.1 Lanpostuen plantillaren diagnosia ^[136]

3.1.1.1 Departamentuetako plantillen azterketa egin eta departamentuen eskura jarri, euskararen ezagutza zertan den jakin dezaten eta haien planifikaziorako baliagarri gerta dakien. ^[137]

3.1.2 Lanpostu elebidunen definizioa ^[138]

3.1.2.1 Lanpostuen komunikazio beharrak aztertu eta departamentuen eskura jarri. ^[139]
3.1.2.2 Lanpostu elebidunak zehazteko irizpideak eman. ^[140]
3.1.2.3 Lanpostu elebidunen kopurua handitu gizartearen beharrei hobeki erantzuteko. ^[141]

3.2.- Foru Administrazioa hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko. ^[142]

3.2.1 Planifikazioa ^[143]

3.2.1.1 Nafarroako Gobernuak herritarren hizkuntza eskubideei erantzuteko lehentasunak identifikatu eta plangintza egin. ^[144]
3.2.1.2 Foru Administrazioko zerbitzu nagusietan ele biko ibilbideak sortzeko oinarriak ezarri eta abian jarri. ^[145]
3.2.1.3 Euskararen erabilera planak onartu, araudia betetzea eta herritarren hizkuntza eskubideak babestea xede direla. ^[146]
3.2.1.4 Foru Administrazioko komunikazioetan Nafarroako bi hizkuntzak erabiltzeko irizpideak zehaztu eta protokoloak langileei jakinarazteko bide eraginkorrak erabili. ^[147]
3.2.1.5 Nafarroako hizkuntzak erabiltzeko prozedurak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egin. ^[148]



3.2.2 Langileen prestakuntza eta trebakuntza [149]

3.2.2.1 Nafarroako Gobernuak langileen euskarazko prestakuntzarako irizpideak eman eta hura planifikatu, garatu eta ebaluatu. [150]

3.2.2.2 Langile euskaldunak aktibatu eta euskaraz trebatu haien lanpostuetan zerbitzua euskaraz emateko gai izan daitezten. [151]

3.2.2.3 Langileen etengabeko euskarazko trebatze teknika, lanpostuen komunikazio beharrei loturikoa, diseinatu eta garatu. [152]

3.2.3 Zerbitzua euskaraz emateko baliabideak [153]

3.2.3.1 Nafarroako Gobernuak Itzulpen Atalaren jardura planifikatu, dauden baliabideak optimizatzeko edo hobeki erabiltzeko. [154]

3.2.3.2 Langile euskaldunen eskura baliabide eta tresna egokiak jarri, haien lanpostuetan euskaraz zerbitzua ematea errazteko eta horretan autonomia handiagoa erdiesteko. [155]

3.2.3.3 Langileak zerbitzua euskaraz emateko gero eta autonomoagoak izan daitezela erraztu, hizkuntza zalantzak argitzeko eta testuak orrazteko bide telematikoa edota telefonikoa haien eskura jarri. [156]

3.2.4 Foru Administrazioan zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerak herritarrei ezagutarazi [157]

3.2.4.1 Zerbitzua euskaraz ematen duten lanpostuak eta langileak identifikatu herritarrek euskaraz egiteko aukerak aise ikus ditzaten (mahaigainekoak, paparrekoak, sinadura korporatiboa...).[158]

3.2.4.2 Herritarrei zerbitzu publikoetan dituzten hizkuntza eskubideen gaineko informazioa eman [159]

3.3.- Politika publikoak garatzean Foru Administrazioko departamentuek Nafarroako bi hizkuntzekiko duten erantzukizuna sustatu eta horretan laguntzea. [160]

3.3.1 Euskararen zeharkakotasuna [161]

3.3.1.1 Euskara, Foru Administrazioaren politika publiko orotan txertatzeko zeharkako elementua dela departamentu guztiek bere egin eta balioetsi. [162]

3.3.1.2 Euskara politika publikoen elementu zeharkakotzat lantzeko eta departamentu guztien koordinaziorako gunea eraginkor bihurtu. [163]

3.3.1.3 Foru Administrazioko departamentu guztien jardueran euskarari eman beharreko trataera bateratzeko irizpideak adostu eta protokoloak ezarri. [164]



3.3.2 Plangintza eta aholkularitza. [165]

3.3.2.1 Euskarabidearen aholkularitzaz eta laguntzaz, Nafarroako Gobernuko departamentuek beren euskara plana egin, garatu eta ebaluatu. [166] Con el

3.3.2.2 Departamentu guztietan hizkuntza unitateak sortu eta Euskarabideak horiek eraginkor bihurtu eta koordinatu. [167]

3.4.- Toki entitateekiko lankidetza markoa sistematizatzea eta hizkuntza politikari dakarzkioten emaitzak maximizatzea [168]

3.4.1 Lankidetza hitzarmenak [169]

3.4.1.1 Toki entitateen eremuan euskararen erabilera sustatzeko lankidetza arautuko duen hitzarmen markoa sinatu eta egoki finantzatu. [170]

3.4.1.2 Toki entitateek euskara planak egitea sustatu eta horretarako aholkularitza nahiz laguntza teknikoa eman. [171]

3.4.2 Toki entitateetako euskara zerbitzu berriak [172]

3.4.2.1 Toki entitateetako euskara zerbitzuen mapa zabaltzea sustatu zerbitzu berriei aholkularitza eta laguntza berezia eman. [173]

3.5.- Estatuko Administrazioari Foru Komunitatean ematen dituen zerbitzuetan euskararen erabilera sartzeko helburua erraztea. [174]

3.5.1 Lankidetza hitzarmena [175]

3.5.1.1 Estatuko Administrazioan euskararen erabilera sustatzeko lankidetza arautuko duen hitzarmen markoa sinatzeko aukerak aztertu eta adostu.

4. EUSKARAREN PRESTIGIOA ETA ERAKARGARRITASUNA^[177]

ETORKIZUNA, *FUTURO* EN EUSKERA^[178]

4.1- Euskararen irudia eta prestigioa hobeki kokatzea, euskarak Nafarroaren balio positiboekin eta etorkizuneko balioekin duen lotura azkartuz^[179]

4.1.1 Komunikazio estrategia ^[180]

4.1.1.1 Euskararen gaineko komunikazio estrategia berritzailea eta integratzailea adostu, gizartearen ahal den eragile gehienen bat-etortzea bildurik. ^[181]

4.1.1.2 Euskararen balioarekin gizartearen sentsibilizazioa indartzeko kanpaina iraunkorrak antolatu. ^[182]

4.1.1.3 Euskararen hautemate positiboari eta prestigioari laguntzen dieten ekitaldiak (biltzar edo topaketa tekniko, zientifiko, profesionalak, teknologiari eta berrikuntzari lotutakoak..., dibulgatzaileak nahiz akademikoak) antolatzea sustatu. ^[183]

4.1.1.4 Gizartearen hainbat esparrutan (IKT, kirol, kultura edo sozio-ekonomia arloetan) egiten diren ekimen arrakastatsuak euskaraz ere bultzatu. ^[184]

4.1.2 Erakunde publikoak eredu ^[185]

4.1.2.1 Nafarroako Gobernuaren eta, oro har, foru erakunde publikoen irudi korporatiboan euskararen presentzia egokia bermatu. ^[186]

4.1.2.2 Nafarroako Gobernuaren eta, oro har, foru erakunde publikoen jendaurreko agerraldietan euskararen erabilera egoki bermatzeko irizpideak adostu eta protokoloetan ezarri. ^[187]

4.1.2.3 Erakunde publikoetako agintariak, ordezkariak edota arduradun politikoak sentsibilizatu hizkuntza lidergoak herritarren hizkuntza hautematean duen garrantziaz eta eragile horiei euskarari prestigioa emateko duten erantzukizunaz jabe arazi. ^[188]

4.1.2.4 Nafarroako Gobernuaren albisteetan eta prentsa oharretan elebitasuna bermatu. Publizitate instituzionala ele bietan egin eta hedabideetan zabaltzeko, hala euskarazkoetan nola erdarazkoetan^[190]



4.1.3 Euskararen erreferente positiboak [191]

4.1.3.1 Euskararen irudi positiboa sendotu gizartean erreferente diren norbanako “prestigidunek” (kirolariek, aktoreek...) euskararen aldeko ekimenekin bat egitearen bidez. [192]

4.1.3.2 Gizartearen eragile ekonomikoek euskararen prestigioa goratzeko duten ahalmena aztertu eta baliatu. [193]

4.1.4 Gizartearen praktika onak ikusgai [194]

4.1.4.1 Alor sozioekonomikoan euskara erabiltzen eta baliagarri egiten nabarmentzen diren praktika onak ikusgai egin eta aintzatetsi. [195]

4.1.4.2 Euskararen erabileraren aldeko gizarte ekimenak babestu eta haien zabaltzea sustatu. [196]

4.1.4.3 Euskaraz funtzionatzen duten gizarte guneak eta zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresa nahiz erakundeak ikusgai egin eta horiek saretzeari lagundu. [197]

4.1.5 Hedabideen eragina [198]

4.1.5.1 Euskarazko hedabideen hedadura baliatu euskararen balio komunikatiboa gizartean agertzeko. [199]

4.1.5.2 Euskara positiboki agertzen duten eta hizkuntzaren prestigioari laguntzen dioten erdarazko hedabideen “praktika onak” aitortu. [200]

4.1.6 Euskal hiztunen ahalduntzea [201][20]

4.1.6.1 Nafar euskaldunak ahalduntzeko estrategiak lantzeko eta baliabideak eskaintzeko programei lagundu [202]

4.1.7 Euskararen balioa [203]

4.1.7.1 Euskarak Nafarroaren izaeran eta nafarren historian duen tokia eta mintzairak egungo Nafarroa ulertzeko duen balioa agertu eta hori hedatzeko ekimenak sustatu. [204]



4.2.- Euskara bere errealitatetik urrun sentitzen duen populazio nafarrari hizkuntza hori hurbiltzea[205]

4.2.1 Sentsibilizazioa [206]

4.2.1.1 Euskara ez dakitenei euskara hurbiltzeko eta hizkuntzara erakartzeko bide berriak aztertu. [207]

4.2.1.2 Euskara ez dakitenengana iristeko diskurtso eta estrategiak euskal mundutik urrun dauden eragileekin ere landu, informazio kanalak hobetuz. [208]

4.2.1.3 Nafarroako mintzairetatik abiatutako eleaniztasunaren onurak eta abantailak zabaltu. [209]

4.3.- Gizartearen paisaia eta bizitzan euskararen presentzia dinamizatzea, Nafarroaren hizkuntza errealitateari dagokion berezko erantzun gisa. [210]

4.3.1 Presentzia paisaia eta gizarte bizitzan [211]

4.3.1.1 Gizartean euskarak duen presentzia handitzea eta hizkuntza ikusgai egitea xede duten egitasmoak babestu. [212]

4.3.1.2 Herritarrek euskara hizkuntza paisaia erabil dezaten errazteko baliabideak paratu gizartearen eskura. [213]

4.3.2 Toponimia [214]

4.3.2.1 Nafarroako toponimia nagusiaren nahiz xehearen mantentze lanak burutu. [215]

4.3.2.2 Nafarroako toponimia hedatzea helburu duten idatzizko edo ikus-entzunezko proiektuak sustatu. [216]

4.4.- Informazio eta komunikazio teknologiak euskararen berezko garapen-hobi bihurtzea, euskara eta modernitatea estuago estekatzeko estrategiatzat. [217]

4.4.1 Euskarazko informazio eta komunikazio teknologiak (IKT), traktore [218]

4.4.1.1 Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzeko komunikazio estrategiak garatu. [219]

4.4.1.2 Nafarroako Gobernuaren softwareak euskaraz konfiguratze eta horiek erabiltzeko moduak aztertu. [220]softwares del Gobierno de Navarra

4.4.1.3 Nafarroako Gobernuaren softwareak euskaraz ere sor daitezen bultzatu. [221]

4.4.1.4 Bilatzaileak egokitu euskarazko bilaketak errazteko eta hobetzeko, beste erakunde batzuekin eta sektoreko eragile nagusiekin elkarlanean. [222]

5.-EKONOMI ERAGILEA^[223]

BERRITU, *INNOVAR* EN EUSKERA^[224]

5.1.- Euskara Nafarroaren ekonomiaren eragile bilakatuko duten ekimenak garatzeko oinarriak ezartzea, euskarak ondare materiagabetzat duen balio paregabea eta mintzairatako dituen ezaugarriak (komunikatzeko, informatzeko eta ezagutza zabaltzeko bidea, arte hizkuntza...) Nafarroako sektore ekoizle, teknologiko eta berritzaileei lotuz. ^[225]

5.1.1 Gaitasun ekonomiko finantzarioa ^[226]

5.1.1.1 Euskarak, Nafarroan aberastasun sortzailea den eredu produktiboaren sustatzaile bihurtzeko, duen gaitasun ekonomiko-finantzarioa aztertu. ^[227]

5.1.1.2 Euskararen gaitasun ekonomiko-finantzarioaren azterketaren ondorioetan oinarriturik, aurrera begirako ildo nagusiak definitu eta garatu. ^[228]

5.1.2 Zerbitzu kalitatea ^[229]

5.1.2.1 Arlo sozioekonomikoan ematen diren diru-laguntzetan, herritarrentzako zerbitzuetan euskara erabiltzea balio erantsia dakarren elementutzat balioetsi. ^[230]

5.1.2.2 Enpresen jardura sustatzeko ematen diren zerga-pizgarrietan euskaraz aritzeko egiten diren inbertsioak aintzat hartu. ^[231]

5.1.2.3 Euskarazko zerbitzua eta, oro har, euskararen erabilera kalitate elementutzat jotzen duten ziurtagiriak eta ekimenak bultzatu. ^[232]

5.2.- Euskara produktu nagusia duten turismo estrategiak garatu eta abian jartzea, turisten bisita kopurua eta aldiko Nafarroan igarotzen dituzten gau zenbatekoaren batez bestekoa handitzea ekarriko duten ekimenak euskararen inguruan sortzeko. ^[233]

5.2.1 Sozioekonomia ^[234]

5.2.1.1 Euskarak turismo eta merkataritza sektoreetan duen egoeraren azterketa sozioekonomikoa egin. ^[235]

5.2.1.2 Euskarak turismo eta merkataritza sektoreetan duen egoeraren azterketa sozioekonomikoa eginik, aurrera begirako ildo nagusiak definitu eta garatu. ^[236]



5.2.2 Turismo eskaintza [237]

5.2.2.1 Euskara turismo ibilbideak eratzeko gaitzat aztertu eta horren gainean turismo eskaintza osatzeko bideak jorratu. [238]

5.3.- Euskara balio erantsiko elementua den arlo ekonomikoetan negozio aukerak sustatzea, Nafarroarako irabaziak eta garapen ekonomikoa ekarriko dituztenak. [239]

5.3.1 Euskara produktua [240]

5.3.1.1 Euskara beren estrategia ekonomikoaren gako duten negozio eta jardueren egungo inaktuaren azterketa sozioekonomikoa egin; hau da, euskara produktutzat edo zerbitzutat edo haien funtsezko zatitzat aztertu. [241]

5.3.1.2 Euskara produktutzat sozioekonomikoki aztertutik, euskara funtsezko osagai duten ekimen produktiboak indartzeko proposamenak egin. [242]

5.3.2 Euskarazko produktuak [243]

5.3.2.1 Euskarazko produktuen eta ekoizleen azokak eta halako erakustaldiak antolatu eta euskarazko produktuak eta zerbitzuak ekoizten/ematen dituztenen sarea egituratzea babestu. [244]

5.4.- Diru-sarrera gehigarriak sortzeko bideak jorratzea, Nafarroan euskarak duen kokapena hobetzeari eraginen diotenak eta EUSKARABIDEAK itzulkin ekonomikoak sorrarazteko gaitasuna piztuko dutenak.[245]

5.4.1 Diru sarrera gehigarriak [246]

5.4.1.1 Produktu eta zerbitzu propioak garatuz eta sustatuz, sarrera gehigarriak lortzeko aukeren inguruko azterketa juridiko eta ekonomikoa egin, Nafarroako Gobernuak Plan Estrategiko honi zein hurrengoei loturiko gaietan berrinbertitu ditzan. [247]

6.-HIZKUNTZA MARKOA [248]

ESKUBIDEAK, *DERECHOS* EN EUSKERA [249]

6.1.- Nafarroako administrazio publikoetan eta izaera publikoko sozietateetan euskararen erabilera arautzea herritarrek zerbitzu publikoez euskaraz baliatu ahal izateko, gaztelaniaz besteko eraginkortasun eta erraztasun baldintzetan. [250] [250]

6.1.1 Araugintza [251]

6.1.1.1 Euskararen Foru Legearen arauzko esparru egokia garatu, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. [252]

6.1.1.2 Foru administrazioaren Plantilla Organikoaren lanpostuen hizkuntza-eskakizunak zehazteko proposamena egin. [253]

6.1.1.3 Kontsumitzaile, erabiltzaile eta langileen euskara erabiltzeko hizkuntza-eskubideak arautu. [254]

6.1.1.4 Hirugarrenek (kontratu administratibo edo diru-laguntza bitartez) herritarrekin harreman zuzena dutenean administrazioak zerbitzua euskaraz bermatzeko neurriak hartu. [255]

6.1.1.5 Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartuta euskararen ezagutza egiaztatzen salbuetsia izateko aukera arautu. [256]

6.1.2 Hitzarmenak [257]

6.1.2.1 Toki-entitateekiko lankidetzak-hitzarmenari heldu, hizkuntza-politika koordinatzeko eta optimizatzeko eta erakunde publikoen baliabideak partekatzeko. [258]

6.1.2.2 Euskararen aldeko garrantzi handiko entitateekin (Euskaltzaindiarekin, Eusko Ikaskuntzarekin...) hitzarmen bereziak sinatu edota haren jarraipena egin. [259]

6.1.2.3 Nafarroako Gobernuak estatuko eta nazioarteko eleaniztasunaren eta hizkuntza gutxituen gaineko foroetan parte hartu (*European Network to Promote Linguistic Diversity-NPLD*, Euroerregioa,...)[260]



6.2.- Plan Estrategikoaren garapen egokia bermatzeko behar diren baldintzak sortzea, betiere Plan Estrategikoan jasotzen diren helburu estrategikoak erdietsi ahal izateko. [261]

6.2.1 Kudeaketa [262]

6.2.1.1 Euskararen Kontseilua berritu, gizartearen parte-hartze handiagoa izan dadin haren osaeran eta eskumen gehiago izan ditzan. [263]

6.2.1.2 Euskara aztertzen eta sustatzen diharduten erakunde, entitate publiko eta ekimen sozialeko erakundeekin lankidetzan normalizatu eta hobetu. [264]

6.3.- Euskarak Nafarroan duen egoera soziolinguistikoa, orokorra nahiz arlokakoa, ezagutzeko datuak eskuratzea gizarteari eskaintzeko eta hizkuntza politika aldi oroz euskararen errealitatearen gaineko informazio oso eta eguneratua oinarritzeko. [265]

6.3.1 Diagnostikoa eta ikerketak [266]

6.3.1.1 Euskararen errealitatea unean-unean modu zehatzean ezagutzen lagunduko duen Euskararen Adierazle Sistema (EAS) izeneko proiektuan parte hartzea, beste erakundeekin [267]

6.3.1.2 Nafarroako euskararen egoera ezagutzeko aldiaren aldiko ikerketa soziolinguistikoa egin. [268]

6.3.1.3 Ikerlan eta azterketa sektorialak egin (hedabideak, teknologiak, gazteria...).[269]

6.4.- Euskararen erabilera ofiziala arautzea gizartearen haren erabilera ahalbidetzeko. [270]
6.4.1 Euskararen erabilera ofiziala [271]

6.4.1.1 Nafarroako administrazioetan euskararen erabilera ofiziala arautu. [272]

6.5.- Nafarroako toponimia arautzea gizarteak hura ezagutu eta zuzen erabil dezan. [273]

6.5.1 Toponimia [274]

6.5.1.1 Toponimiaren inguruko araudia landu, bereziki Euskaltzaindiaren aholkuz toponimia nagusia finkatzeko. [275]

6.5.1.2 Toki entitateekin, unibertsitateekin eta beste erakundeekin lankidetzan toponimiaren gaineko ikerketa bultzatu. [276]



6.6.- Finantziazioa eta baliabide ekonomikoak bilatzeko plana garatzea, Plan Estrategikorako funtsa gehigarriak eskuratzea ahalbidetuko duena eta euskararen prestigioa handitzeko balio izanen duena. [277]

6.6.1 Finantziazioa [278]

6.6.1.1 Nafarroako Gobernua kide den erakundeetan finantziazio eta funtsak bilatzeko bideak (Euro-erregioaren bidezko edota POCTEFA programako laguntzak, adibidez) aztertzea Nafarroak Bruselan duen bulegoarekin koordinaturik. **[279]**

6.6.1.2 Euskarabideak garatzen dituen zenbait proiektu estrategikotarako finantziazio eta baliabide ekonomikoak arlo pribatutik erakartzeko aukerak aztertu. **[280]**